

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2011ko apirilaren 20an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

5.- TEODORO TAR ANASAGASTI KALEKO ESPALOA ZABALTZEKO OBRAK EGITEKO OBRA KONTRATUA BEHIN-BEHINEKOZ ESLEITZEA.

Xedea

Teodoro tar Anasagasti kaleko espaloia zabaltzeko obrak egiteko obra kontratua behin-behinekoz esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2011ko martiaren 2an Tokiko Gobernu Batzarrak Teodoro tar Anasagasti kaleko espaloia zabaltzeko obrak egiteko proiektua eta administrazio baldintza zehatzen orriak onartzea erabagi eban.

Bigarrena: Aitatutako kontratazio-prozesura bi parte-hartzaile aurkeztu dira: Etxegintza Lupategi SL eta Antonio Hidalgo.

Argudioak

Bakarra: 2011ko apirilaren 14an emondako txosten teknikoaren arabera, hauxe izan da eskaintza bakoitzak lortutako puntuazioa:

Eskaintzak	Bakoitzaren prezioak eurotan	Aurrekontuaren (35.826,90 euro) arabera beherapena	Prezioa 0-80	Obra egiteko epea (Bi hilebete) 0-20	Guztira
Antonio Hidalgo	34.726,22	3,07%	10,9	27 egun 5	15,9
Etxegintza Lupategi, S.L.	34.711,59	3,11%	11,1	18 egun 20	31,1

Erabagia

Goian aitatutako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Teodoro tar Anasagasti kaleko espaloia zabaltzeko obrak egiteko obra kontratua, behin-behinekoz, ETXEGINTZA LUPATEGI, SL enpreseari esleitzea, 34.711,59 euroan (BEZa barne).

BIGARRENA: Etxegintza Lupategi, SL enpreseari jakinarazotea, behin-behineko esleipenaren iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, 15 eguneko epean konpultsau barik daukazan agiriak (halan izatekotan) konpultsau beharko dauzala eta behin betiko bermea jarri beharko dauela, eta, holan egin ezean, behin-behineko esleipena bertan behera geratuko dala.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2011ko apirilaren 29an.

ONETSIA
ALKATEA